



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 1a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2013ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (11. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (3. or.).
 - III. Nafarroako Kontseilua (4. or.).
 - III.1. Definizioa eta eginkizunak (4. or.).
 - III.2. Kideak (4. or.).
 - III.3. Araubide ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa (4. or.).
 - III.4. Langileak (5. or.).
 - III.5. Araubidea (5. or.).
 - III.6. Nafarroako Kontseiluaren jardura (5. or.).
 - IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Urteroko kontuak (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
- Eranskinak
- I. Finantzen egoera-orriak (7. or.).
 - II. Nafarroako kontseiluaren aurrekontu-gastuaren bilakaera 2001-2013 epean (euro konstantetan) (10. or.).
 - III. Nafarroako kontseiluaren jardueraren bilakaera 2000-2013 aldian (10. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontuen Ganbera honek Nafarroako Kontseiluaren 2013ko urteko kontuen erregulartasunaren fiskalizazioa egin du.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2014rako onetsitako jarduera-programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin zuen 2014ko maiatzean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi ditugu Nafarroako Kontseiluko langileek lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

Ea Nafarroako Kontseiluaren 2013ko kontuek zehazki islatzen duten, alderdirik behinenetan, erakunde horren 2013ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorrean onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu diren horiek.

Ea 2013an, Nafarroako Kontseiluaren jarduerari aplikatzekoa zaion legedia bete den.

Lanaren norainokoak Nafarroako Kontseiluaren 2013ko kontuak hartzen ditu. Kontu horiek honakoek osatzen dute: balantzea, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, emaitzen kontua, oroitidazkia, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria eta eskudiru-fluxuen egoera-orria.

Lan hau sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako printzipioei eta arauei jarraituz egin da. Behar adina froga lortzeko eta aipatutako fiskalizazio-helburuak lortzeko auditoriako proba eta teknika guztiak aplikatu dira.

III. NAFARROAKO KONTSEILUA

III.1. DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK

Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 28.ter artikulua definitzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute abagune edo komenientziari buruzko baloraziorik eduki.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izan behar du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira. Bere eskumen-esparru berezia du eta Kontseiluko kideei aplikatzekoa zaien araubideak kalifikazio tekniko zorrotza izan dezatela eskatzen du, haien neutraltasuna eta inpartzialtasuna ziurtatzeko.

III.2. KIDEAK

Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatzen dute Kontseilua. Nafartasun politikoa eta gaitasun eta ospe aitortua duten legelarien artean izendatzen dira: bost Nafarroako Parlamentuak proposatzen ditu, eta gainerako biak Nafarroako Gobernuak hautatzen ditu.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Organo horrek hautatzen ditu lehendakaria eta idazkaria.

Nafarroako Kontseiluaren ordainsarien ereduak, Estatu Kontseiluarenak eta beste autonomia erkidego batzuetako kontseilu aholku-emaielenak ez bezala, ez du aintzat hartzen bere kideen profesionalizatzea, eta, hala, bertaratzeengatiko dieten eta emandako zerbitzuengatiko ordainsarien sistemaren bidez ordaintzen zaie.

III.3. ARAUBIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA AURREKONTUEI BURUZKOA

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua programa independente gisa dago sarturik Nafarroako aurrekontu orokorretan.

Nafarroako Kontseiluak autonomia du bere gastuen egoera-orria prestatu eta betetzeko, aplikatzekoa zaion legediaren arabera, eta Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten oinarri eta xedapenen menpe dago. Bere aurrekontua eta kontuak bere gisa aurkezten ditu, bere kontabilitatearekin, 2005ez gero.

Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak izatea edota funtsen edo baloreen mugimenduak egitea dakarren Nafarroako Kontseiluaren ekintza, dokumentu eta espediente oro Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetza Orokorraren kontrolaren mende dago.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria gastu eta diru-sarrera arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Nafarroako Kontseiluaren 2013 urterako aurrekontua 470.854 eurokoa da.

Betetze-maila ehuneko 60 izan da gastuetan; 284.008 euro, guztira. Langileria-gastuak ehuneko 45 dira eta ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak ehuneko 55.

Diru-sarrerak 397.792 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-maila ehuneko 84koa. Diru-sarrera horien ehuneko 99,97 Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia arruntak dira.

2013ko ekitaldiaren betetzearen emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 113.783 euro itzuli zitzaizkion.

III.4. LANGILEAK

Nafarroako Kontseiluaren 2013rako plantilla organikoak bi langile ditu, zeinak Nafarroako Gobernuko funtzionarioak baitira. Honako egoeran daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

III.5. ARAUBIDEA

Nafarroako Kontseilua arau hauen menpe dago, besteak beste:

Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak aldatu zutena.

Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena, ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatu zutena.

Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

III.6. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERA

2013an, Nafarroako Kontseiluak 53 irizpen-eskaera erregistratu zituen. Horietatik 13tan, espediente osatu gabetzat jo zen eta dokumentazio osagarria eskatu zen. Gainera, bi espediente irizpena eman gabe geratu ziren, irizpena eskatutako agintariak erretiratzeko eskaturik, eta hiru espediente eskatutako agintaritzari itzuli zitzaion, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamenduan agintzen diren baldintzetara egokitzen ez zelako.

2013an zehar 45 irizpen eman zituen Nafarroako Kontseiluak. Horietatik hiru 2012an egindako eskariei zegozkien, eta gainerako 42ak 2013. urtean zehar egindako kontsultei zegozkienak ziren. 2000n lanean hasi zenetik Kontseiluak izan duen jarduera txosten honen III. eranskinean jaso da.

Kontseiluak 2000-2013 epean emandako irizpen guztien ehuneko 45 legeak edo haien aldaketak betetzeko erregelamenduen proiektuei buruzkoak dira (2013an, irizpen guztien ehuneko 51 dira).

Ondoren beste hauek datoz: 120.202,42 eurotik gorako kalte-ordainen erreklamazioei buruzko irizpenak, ehuneko 13 guztira (2013an ehuneko 16), Administrazio-egintzak ofizioz berraztertzeari buruzkoak, ehuneko 12 (2013an, ehuneko 11 izan ziren) eta alderdien artean Nafarroa duten lankidetzeta-hitzarmenak eta akordioak, ehuneko bederatzia (2013an ez zen irizpen bat bera ere eman).

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta finantza-kontuak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera. Halaber, II. eranskinean, Nafarroako Kontseiluaren gastuen aurrekontuaren likidazioak 2001-2013 epean izan duen bilakaera erakusten dugu.

Egindako azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

IV.1. URTEROKO KONTUAK

Gure ustez, Nafarroako Kontseiluko 2013ko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan entitatearen ondarea, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa eta 2013ko abenduaren 31n zuen finantza-egoera, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzak ere, aplikatzekoa zaion informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari jarraikiz, bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta araei.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2013ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera gaur egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera izan da, oro har.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 28an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

ERANSKINAK**I. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK***I.1. Aurrekontuaren likidazioa*

Gastuen aurrekontuaren likidazioa

	(Eurotan)			
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langile-gastuak	181.304,00	181.304,00	129.102,30	129.102,30
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	260.550,00	260.550,00	154.906,02	154.338,96
6. Inbertsio errealak	29.000,00	29.000,00	0,00	0,00
Gastuak, guztira	470.854,00	470.854,00	284.008,32	283.441,26

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

	(Eurotan)			
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	441.760,00	441.760,00	397.652,30	397.652,30
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	94,00	94,00	139,22	139,22
7. Kapital-transferentziak	29.000,00	29.000,00	0,00	0,00
Diru-sarrerak, guztira	470.854	470.854	397.791,52	397.791,52

Aurrekontu-emitza

	(Eurotan)		
Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Zenbatekoen alde
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	397.791,52	284.008,32	113.783,20
2. Finantza-aktiboen eragiketak (8. kap.)	0,00	0,00	0,00
I. Ekitaldiko aurrekontu-emitza (1+2)	397.791,52	284.008,32	113.783,20
II. Finantza-pasiboaren alde garbia	0,00	0,00	0,00
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I+II)	397.791,52	284.008,32	113.783,20
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita			113.783,20

I.2. Diruzaintza-gerakina

	(Eurotan)	
	Kontua	Zenbatekoa
+ I. Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak		0
- II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak		6.814,84
Aurrekontu korronteko diru-sarreraren aurrekontukoak	400	567,06
Aurrekontu itxiko diru-sarreraren aurrekontukoak	401	0,00
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	477	6.247,78
+ III. Ekitaldi amaierako funts likidoak	57	120.598,04
IV. Atxikitako diruzaintza-gerakina		0
V. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (I-II+III-IV)		113.783,20
Diruzaintza-gerakina, guztira (IV+V)		113.783,20

I.3. Egoera-balantzea

Aktiboa

(Zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2012	2013
Aktibo ez-arrunta	16.327	10.187
IBILGETU MATERIALA	16.327	10.187
Altzariak eta tresneria	5.786	4.757
Informazioa prozesatzeko tresneria	3.169	839
Irudi korporatiboa	938	-
Bestelako ibilgetu materiala	6.435	4.591
Aktibo arrunta	77.189	120.598
DIRUZAIINTZA	77.189	120.598
Bankuak eta kreditu-erakundeak	77.189	120.598
Aktiboa, guztira	93.516	130.785

Pasiboa

(Zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2012	2013
Ondare garbia	87.407	123.970
Ondarea	16.327	10.187
Ekitaldiko emaitza	71.080	113.783
Epe laburreko hartzekodunak	6.109	6.815
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	46	567
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	6.063	6.248
Pasiboa, guztira	93.516	130.785

I.4. Emaitza-kontua

Emaitza arrunten kontua

(Eurotan)

Zor	Hartzeko
129.102 Langile-gastuak	Diru-sarrera finantzarioak 139
154.906 Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak 397.652
6.140 2013ko amortizazioa	Ibilgeturako diru-laguntzen emaitzen egozpena 6.140
113.783 Aurrezkiek (emaitza positiboa)	
403.931 Guztira	Guztira 403.931

I.5. Eskudiru-fluxuen egoera-orria

	(Zenbatekoak, eurotan)	
	2013	2012
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak	268.689,22	265.426,36
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	268.550,00	264.965,60
Kobratutako interesak eta dibidenduak	139,22	414,78
Beste kobrantza batzuk		45,98
B) Ordainketak:	-148.091,18	-183.727,74
Hornidurak	42.141,29	61.683,04
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	92.454,79	105.312,43
Bestelako kudeaketa-gastuak	13.495,10	16.732,27
Ordaindutako interesak		
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A+B)	120.598,04	81.698,62
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:		
Inbertsio errealeen salmenta		
Finantza-aktiboen salmenta		
D) Ordainketak:	0,00	-4.509,60
Inbertsio errealeen erosketak	0,00	4.509,60
Finantza-aktiboen erosketak		
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C+D)	0,00	-4.509,60
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondarean izandako gehikuntzak		
Ondareari egindako ekarpenak		
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-77.188,78	-142.524,00
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	77.188,78	142.524,00
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak	-77.188,78	-142.524,00
VII. ESKUDIRUAREN HANDITZE/GUTXITZE GARBIA	43.409,26	-65.334,98
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	77.188,78	142.523,80
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	120.598,04	77.188,82

I.6. Ondare garbian izandako aldearen egoera-orria

	(Eurotan)		
	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2012	16.327,25	71.080,24	87.407,49
Ekitaldiko aldeak	-6.139,92	42.702,96	36.563,04
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		113.783,20	
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	-6.139,92	-71.080,24	
Amaierako ondare garbia, 2013	10.187,33	113.783,20	123.970,53

II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA 2001-2013 EPEAN (euro konstantetan)

Gastuak (euro konstantetan)	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Langile-gastuak	85.564	127.102	129.744	130.960	134.082	139.603	139.302	138.485	139.255	131.000	134.454	120.480	129.102
1. kapituluua. Langile-gastuak	85.564	127.102	129.744	130.960	134.082	139.603	139.302	138.485	139.255	131.000	134.454	120.480	129.102
Konponitze- mantentze- eta kontserbazio-lanak	0	55	515	897	1.105	803	720	4.146	8.911	297	985	1.176	768
Materiaia, hornidurak eta bestelakoak	10.345	10.104	23.458	35.029	51.476	38.298	35.860	42.346	40.414	109.537	57.722	46.893	32.460
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	127.051	181.990	185.201	126.478	157.708	138.982	136.648	156.923	155.714	177.892	130.134	129.394	113.693
Argitalpen-gastuak	679	10.540	41.329	21.346	19.942	22.060	22.986	18.430	18.330	18.250	18.356	12.388	7.986
2. kap. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	138.075	202.688	250.503	183.750	230.231	200.143	196.215	221.845	223.368	305.977	207.197	189.791	154.906
Inbertsio errealak	11.957	25.221	59.644	8.680	11.219	10.449	0	1.405	26.756	1.326	7.573	4.510	0
6. kapituluua. Inbertsio errealak	11.957	11.713	59.644	8.680	11.219	10.449	0	1.405	26.756	1.326	7.573	4.510	0
Guztira	235.596	341.503	439.892	323.390	375.531	350.195	335.517	362.695	389.382	438.303	349.225	314.781	284.008

III. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERAREN BILAKAERA 2000-2013 ALDIAN

Gaia	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Foruaren Hobekuntzaren aldaketa	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	2
Legegintzako Foru Dekretu proiektua	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	4
Konstituzio kontraktotasun errekurtsioak jartzea	1	1	1	0	2	1	0	2	0	0	2	0	5	2	17
Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako erregelamenduen proiektuak	3	8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	11
Alderdien artean Nafarroa duten lan-kidetzak hitzarmenak eta akordioak	20	31	1	5	2	4	1	0	5	0	1	0	0	0	70
Legeak edo hain aldatetako beteizako erregelamenduen proiektuak	18	14	36	45	20	30	21	18	25	20	32	24	18	23	344
Akordioak, judizialak zein judiziotik kanpokoak	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Berrikuspen-errekurtsio administratiboak	5	0	9	3	2	6	1	0	0	3	3	1	1	1	37
120.202,42 eurotik gorako kalte-ordainen erreklamazioak	3	3	9	8	7	6	5	11	8	10	8	8	10	7	103
Administrazio-egintzak ofizioz berraztertzea	1	5	13	5	4	6	8	5	7	9	5	7	12	5	92
Udal mugarteak aldatzeko espedienteak	0	0	0	2	5	2	0	1	1	2	0	1	0	0	14
Administrazio-kontratu edo -hitzarmenaren interpretazio, deuseztasuna edo iraupena, kontratista aurka agertzen delarik	3	5	3	1	1	2	3	1	4	2	3	0	3	2	33
Bestelako gaiak	3	2	5	4	2	4	3	2	0	3	6	1	0	5	40
Guztira	58	69	80	74	45	61	42	40	51	49	61	44	49	45	768

Iturria: 2013ko jarduerari buruzko oroitdazkia. Nafarroako Kontseilua.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2013ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2013ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2013ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (12. or.).

I.1. Arartekoaren eginkizuna eta langileria (12. or.).

I.2. Araubide ekonomikoa eta kontabilitatekoa (12. or.).

I.3. Aplikatzekoa den araudia (13. or.).

II. Helburua eta norainokoa (14. or.).

III. Iritzia (14. or.).

Eranskina: Finantzen egoera-orriak (15. or.).

I. 2013ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (15. or.).

2. 2013ko aurrekontu-emaizta (16. or.).

3. Diruzaintza-gerakina, 2013ko abenduaren 31n (16. or.).

4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (17. or.).

5. 2013ko ekonomia- eta ondare-emaiztaren kontua (18. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoaren kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa, 2013ko ekitaldiari buruzkoa, egin du, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2013rako onetsi zuen fiskalizazio-programan.

Landa-lana auditore batek eta auditoriako teknikari batek osatutako taldeak egin du 2014ko maiatzean. Gainera, Kontuen Ganberako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboen laguntza jaso dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren bulegoko langileei.

I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazio publikoaren balizko abusu eta akatsen aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du egindakoarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta jardunean jarraitzen du.

Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Arartekoaren bulegoko 2013rako plantilla organikoak zortzi lanpostu ditu; horietatik bost behin-behineko langileenak dira, bi funtzionarioenak eta bat administrazio-kontratudunarena.

I.2. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KONTABILITATEKOA

Arartekoa kontabilitaterako, kontu-hartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago; halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartu ondoren, Nafarroako Arartekoak kontabilitateko plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2013. urtean.

Horrela, aurreko urteetan bezala, aurrekontuaren likidazioak, egoera-balantzeak, ekonomia-eta ondare-emaitzaren kontuak eta memoriak osatzen dute kontu orokorra, bai eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta esku-diruen fluxuarena ere.

2013ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honakoak aipa daitezke:

- Aitortutako betebeharrak 680.889 euro egin dute, eta betetze-maila % 83koa izan da. 2012ko ekitaldiarekin alderatuz gero, betebeharrak horiek ehuneko 3 murriztu dira.

- Gastua era honetan banatzen da, batez ere, kapituluz kapitulu: langile-gastuak ehuneko 67; ondasun arruntak eta zerbitzuak, ehuneko 23.

- Aitortutako diru-sarrerek 780.251 euro egin dute, eta betetze-maila % 95ekoa izan da. Jasotako diru-sarrera horietatik gehienak Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik heldu dira. Zehazki, Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziek 779.900 euro egin dute; horietatik, 742.700 funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratu dira, eta 37.200 euro, inbertsio-gastuetara.

- 99.362 euro itzuliko zaizkio Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari, ekitaldiko gerakina baitira.

I.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Arartekoari 2013an aplikatzekoa zaion araudia ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.

- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua da iritzi bat eman ahal izatea ondokoei buruz:

- Ea Arartekoaren 2013ko kontu orokorrak zehazki islatzen duen alderdirik behinenetan erakunde horren ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta ea guztiok onartuak diren kontabilitateko printzipio eta araei jarraituz prestatu den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

- 2013an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino errespetatu duen entitateak.

Fiskalizazioaren norainokoari dagokionez, lanaren ardatza izan da kontua osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren aztertzea, bai eta haren agiri- eta justifikazio-euskarriak ere. Beharrezkotzat jo diren hautaprobak eta prozedurak egin dira lanaren helburuei buruzko froga nahikoak lortze aldera.

Metodologiari dagokionez, lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz, zeinak Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

III. IRITZIA

2013ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

Gure iritzian, Nafarroako Arartekoaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Orobat, 2013ko ekitaldian zehar, Nafarroako Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean.

Lehendakaria,

Helio Robleda Cabezas

ERANSKINA: FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**I. 2013ko GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****Gastuak kapituluz kapituluz**

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehunekoa
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	459.492	91
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	244.600	0	243.953	153.645	63
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.747	33.379	96
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	34.373	87
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	680.889	83

Diru-sarrerak kapituluz kapituluz

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	0	0
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	742.700	95
6. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	351	35
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	37.200	94
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	780.251	95

Ogasun Publikoari atzera ordaindutakoa	780.251
	- 680.889
Guztira	99.362

2. 2013ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2012			2013		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	782.032	659.601	122.430	743.051	646.516	96.535
b. Kapital-eragiketak	39.525	39.292	233	37.200	34.372	2.827
c. Merkataritza-eragiketak	0	0	0	0	0	0
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	821.558	698.894	122.664	780.251	680.888	99.362
d. Finantza-aktiboak	174	0	174	0	0	0
e. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	174	0	174	0	0	0
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (I=1+2)	821.732	698.894	122.838	780.251	680.888	99.362
Doikuntzak						
3. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinez finantzatuta gatatutako kredituak						
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak						
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak						
II. Doikuntzak guztira (II=3+4-5)			0			0
Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)			122.838			99.362

3. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2013ko ABENDUAREN 31n

Osagaiak	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
1. (+) Funtz likidoak	158.086	141.229
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
- (+) Aurrekontu korrontetik	0	0
- (+) Aurrekontu itxietatik	0	0
- (+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	0
- (+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	158.086	141.229
- (+) Aurrekontu korrontetik	7.201	11.330
- (+) Aurrekontu itxietatik	0	0
- (+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	150.884	129.898
- (+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontusailak	0	0
- (+) Egindako kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	0	0
- (+) Egindako ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak	0	0
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2+3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina = (I-II-III)	0	0

4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA	2012	2013	PASIBOA	2012	2013
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	595.156	429.842	A) ONDARE GARBIA	595.156	429.842
I. Ibilgetu ukiezina	43.171	65.518	I. Ekarritako ondarea	0	0
3. Aplikazio informatikoak	43.171	65.518	II. Sortutako ondarea	595.156	429.842
II. Ibilgetu materiala	551.985	364.323	I. Aurreko ekitaldietako emaitzak	595.156	429.842
2. Eraikinak	431.876	126.987	Ondarea	600.618	435.304
4. Ondare historikoko ondasunak	41.508	41.508	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
5. Bestelako ibilgetu materiala	78.600	195.827			
Makinak, instalazioak eta tresnak	7.854	138.917			
Altzariak eta tresneria	19.823	14.599			
Informazio-prozesuetako ekipoa	31.866	22.430			
Bestelako ibilgetu materiala	19.055	19.880			
B) AKTIBO KORRONTEA	158.086	141.229	C) PASIBO KORRONTEA	158.086	141.229
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	158.086	141.229
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	I. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	7.201	11.330
3. Administrazio publikoak	0	0	3. Administrazio publikoak	150.884	129.898
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0	Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela-eta	20.309	22.431
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	0	0	Foru Ogasun Publikoa, eskubide pasiboen ondoriozko eskubideak direla eta	998	1.048
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	158.086	141.229	Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	122.838	99.362
2. Diruzaintza	158.086	141.229	Gizarte Segurantzak hartzekodun	6.737	7.056
Kutxa	239	917			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	157.846	140.312			
AKTIBOA, GUZTIRA	753.242	571.071	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	753.242	571.071

5. 2013ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

KONTUAK	2012	2013
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	820.675	779.900
a) Ekitaldikoak	820.675	779.900
a.2) Transferentziak	820.675	779.900
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	39.525	37.200
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	781.150	742.700
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira (1+2+3+4+5+6+7)	820.675	779.900
8. Langile-gastuak	-468.350	-459.491
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-396.721	-389.291
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-59.932	-64.543
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-220.377	-227.693
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-99.320	-68.336
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-17.090	-28.719
b) Gizarte-zamak	-71.628	-70.200
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-71.628	-70.200
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-31.692	-33.379
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-159.559	-153.645
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-159.559	-153.645
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-39.859	-66.706
B) Kudeaketa arrunteko gastuak guztira (8+9+10+11+12)	-699.461	-713.222
I. KUDEAKETA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)	121.214	66.677
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galeraren eta besterentzearen emaitzak	-1.623	-132.980
a) Balio-galera	0	-132.845
b) Bajak eta besterentzeak	-1.623	-134
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	119.590	-66.303
15. Diru-sarrera finantzarioak	882	351
b) Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	882	351
b.2) Bestelakoak	882	351
III. ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA (15+16+17+18+19+20)	882	351
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	120.472	65.951

